

Epailaren 18ko 4/1981 LEGEA, «Euskadiren izeneko Senadoreen Izandapenaz». (Hutsen zuzenketa: Konstituzio Auzitegiaren Epaia: 40/1981 erreferentzia zenbakia, 1981/12/18an onartu zen, BOEko 12. alean argitaratu zen, 1982/01/14an).

ATARIKOA

1978garreneko Abenduaren 25eko Konstituzioaren 69.5 Atalak agintzen duenez, Elkartea Autonomiadunek Erresumako Gorte Nagusietako Senadoko Biltzarrerako bere berarizko ordezkariak izendatuko dituzte, izendapen hori egitea Elkartea Autonomiadun bakoitzeko Legebiltzarrari dagokiola.

Euskal Herriko Autonomia-Estatutoak, bere 28garren Atalaren a) zatian, Eusko Legebiltzarrak, Legebiltzarraren beraren lege baten horretarako jarri dedin moduz bere izeneko Senadoreak izendatzeko duen ahalmena sendesten du.

Lege honek, Gorte Nagusietarako Euskal Herriaren izeneko ordezkarien izendapenaren egite-ratze-bideak jartzen ditu.

Lehenengo Atala

Euskal Herriaren izeneko izan eta 1979garreneko Abenduaren 18ko Autonomia-Estatutoko 28garren Atalaren a) zatia dagokien Senadoreen izendapena Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak egingo du, Lege honek ezartzen duen moduan.

Bigarren Atala

1.–Gara-adineko izan, bere politika-eskubide guztiak indarrean izan, eta politika-legez euskaldun izan daitezen aurkeztutako hautagaiak hautatu ahal izango dira Elkartea Autonomiadunaren izeneko Senadore.

2.–Hala ere, honako hauek ez dira hautagai izango:

- a) Konstituzio-Auzitegiak.
- b) Legeak zehaztu ditzan Erresuma Arduralaritzako gorenkargudunak, Erresuma-Jaurlaritzakideak salbu.
- c) Herri-jagolea.
- d) Ihardun diharduten Auzimaisu, Epailari eta Herri-Salatariak.
- e) Ogibidezko gudagizonak, eta ihardun diharduten segurantzak eta hertzain-indar eta erakundeak.
- f) Hauteskunde-Batzordeetako kideak.

3.–Erresumako hauteskunde-legeetan esandakoak eta Eusko Legebiltzarreko berarizko legeetan zehaztu daitezienak izango dira elkartuezinaren zio.

Hirugarren Atala

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak egin eta behin-betiko Mahaia eratu ondoren, Lehendakariak hogeit egutegi-eguneko epe bat irekiko du, Legebiltzar-Taldeek Senadoretarako hautagaien saloa egin ahal dezaten.

Laugarren Atala

Aurreko Atalak dion epea bukatu ondoren, Legebiltzarreko Mahaiak Elkartuezinetikoen Batzordeari saloak egin dituzten Legebiltzar-Taldeengandik hartutako hautagai-zerrendak eta agiripaperak eskuratuko dizkio.

Esandako Legebiltzar-Batzorde horrek, deia horretarakoxe egindako bilkuran, aurkeztutako hautagaiengan gaitasun eta hautagaitasun betebeharrak gertatzen diren ala ez aztertuko du. Batzordeak, horretarako egoki derizten agiripaper osagarria eraman diezaizkieteneko eskea egin ahal izango die aurkezpenak egindako Taldeei eta, hala behar izanez gero, egindako aitortpenen sendespena.

Arauz ezarritako epearen barruan Batzordeak dagokion Erizpena emango du, lege honen 2garren Atalak aipatzen dituen gaitasun, hautagaitasun eta elkartuezinak hautagaiengan gertatzen diren ala ez erasoz.

Hautagaietako batengan edo batzuegan elkartuezinen bat gertatzen bada, Batzordeak, doakion hautagaiak hautatuta ateraz gero Senadoretzaren eta salatutako elkartuezinaren iturri den karguaren arteko aukera egin beharko dueneko epea emango du.

Bosgarren Atala

Elkartuezinekiko Batzordeak bere erizpena eman ondoren Eusko Legebiltzarrak, deia horretarakoxe egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako eran Batzordeak onartutako hautagaien artean Senadoreak hautatuko ditu.

Boto-ematea txartelen bidez egingo da, hoietan hautagai bakar baten izena idatziz.

Boto-emanketa bakoitza baino lehen, Legebiltzar-Talde bakoitzak aurkeztutako zerrendetan egon eta Batzordeak onartutakoetatik zeini buruzkoa den adieraziko du.

Emandako botoen gehiengoa izan dezaten hautagaiak aterako dira hautatuta, izendatutako hautagaiak legezko Bitzarkideen laurdenaren botoak gutxienez izan ditzanaren baldintzapean.

Lehenengo boto-emanketaren ondoren oraindik izendatu gabeko Senadorerik gelditzen bada bigarren boto emanketa bat egingo da, eta balioz emandako botoen gehiengoa izan dezaten hautagaiak aterako dira hautatuta.

Aurreko lerroaldian ohartemandako bigarren boto-emanketarako, saloak egiten dituzten Legebiltzar-Taldeek hautagai-izendapen berria egin beharko dute, Elkartuezinekiko Batzordeak onartutakoetatik.

Boto-berdintasuna gertatuz gero, Legebiltzarrean toki gehiago dituen Legebiltzar-Taldea bere alde duen hautagaia aterako da izendatuta. Saloa egiten dituzten Legebiltzar-Taldeen artean ere tokikopuruzko berdintasuna izatekotan, Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan boto gehiago aterarako Taldeak izendatutakoa aterako da.

Seigarren Atala

Eusko Legebiltzarraren izeneko Senadoreen manu-aldia bost urtekoa izango da.

Izendatutako Senadoreek Lege-Epaitzan ohartemandakoetan bukatuko dute bere manu-aldia, eta nolana ere bere izendapena gertatu zeneko Eusko Legebiltzarraren legegintza-aldia bukatzerakoan, hurrengoan Senadore berrien izendapena egin ondoren.

Senaduren legegintza-aldia Legez ezarritako ezein ziogatik bukatzea gertatuz gero, Legebiltzarrak izendatu beharreko Senadore berriak lehen hautatutakoak heurak izango dira, eta Eusko Legebiltzarraren legegintza-aldia bukatu ondoren oredezkoak izendatu daitezenerarte bere manu-aldia iraungo dute.

Zazpigarren Atala

Euskal Herriaren izeneko Senadore guztiak ezingo dira, inoiz ere, biltzar honetan dauden Legebiltzar-Taldeetako bakar baten saloz hautatu.

Zortzigarren Atala

Senadorean hautapena egin ondoren, Legebiltzarreko Lehendakariak Biltzarrari ateratakoaren berri emango dio.

Osoko Bilkuran bertan, edo hurrengoko lehenengoan, Legebiltzarrak hautatutako Senadoreak atotsi, eta bere izendapena jakinaraziko zaie. Lehendakaritzak izendapen hori onar dezatela eskatu, eta bere onarpena iritsi ondoren, Euskal Herriaren izeneko Senadore aldarrikatuko dira.

Legebiltzarreko Mahaiak dagozkien izendapen-egiaztapenak eskuratuko dizkie hautatutako aldarrikatutakoei.

Bederatzigarren Atala

Legegintza-aldi berean gerta daitezten Senadoretango hutsak Lege honek ezarritako modutan beteko dira 7garren Atalak egiten duen mugapenarekin.

Hutsa gertatu eta hamabost eguneko epearen barruan, Legebiltzarreko Mahaiak dagokionez Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzea aginduko du, lege honen 3garren Atalak Senadore berria izendatzeko dakartzan bideak egiteari ekiteko.

ALDIBATERAKO ERABAKIA

Lege hau indarrean jarri eta ondorengo hogeitun eguneko epearen barruan Legebiltzarreko Lehendakariak, Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean honetzazko argitarapenaren bidez, 3garren Atalak dion bide-egiteari ekin dakiola aginduko du, eta hautatuta atera daitezten hautagaien Senadungo manu-aldiak oraingo legegintza-aldiak diraueno iraungo du.

AZKEN ERABAKIA

Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunean bertan jarriko da indarrean.